

# BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Funtsezkoa izango da argi eta garbi gure bezeroekin izan nahi dugun harremana zehaztea. Hauek gure enpresan kontsumitzen jarraitzea eta jende gehiago erakartzea izango dira gure helburuak, ahalik eta bezero gehien edukitzeko eta beti guregan fidatzeko. Horretarako, gero eta jende gehiago erakartzeko, 2 hartu eta 1 ordaindu, ofertak... jartzea garrantzitsua izango da. Orduz gero nahiko zabala edukiko dugu: Astelehenetik larunbatera 7:00-19:00 eta igandetan 7:00-14:00.

Guk erabiliko ditugun harreman motak, batetik, **autozerbitzua** izango da. Gure web orrira sartzean eta bezero batek eskaera bat egin nahi duenean, "eskaera egin" botoiari emango dio. Hori eginda, dauden ogi mota guztiak eta zer prezio duten ikusita, zer erosi nahi duen aukeratuko du. Behin aukeratuta, "eskaera bukatu" botoiari emango dio eta eskaera enpresara bidaliko da justu ondoren. Behin jasota, ogiak prestatu eta etxera eramango dute 5-10 minuturen buruan eta iristerakoan, bezeroak nahi duen modura ordainduko du (txartela erabiliaz edo txanponekin).

Baita ere, **laguntza pertsonal eskainia** erabiliko dugu. Pertsona batek online egin ordez, telefonoz deitu dezake enpresari eta hango langile batekin hitz egingo du bere eskaera bideratu ahal izateko. Bezeroak ez badaki zer ogi erosi, honek aholkuak eman diezazkioke zer erosi ahal izateko. Behin jakinda zer erosiko duen, langileak apuntatu egingo du eta ogiak prestatu ondoren bere helbidera joango da entregatu ahal izateko eta ordaintzeko.

Gure bezeroak mantentzeko, bazkide-txartelak egiteko aukera dago. Hau eginda, ez da bere etxera joateagatik ordaindu behar den extra hori pagatu behar. Honek, hasieran, merezi ez duela ematen du, baina egunero erosten jarraitzen badu, diru asko aurreztuko du. Gainera, larunbat goizetan, 2x1 oferta egongo da, 7:00-11:00 orduen artean, ogi bat erosterakoan prezio berdina duen beste ogi bat aukeratu dezake eta dohain eraman.

Bestalde, jabetu gara badagoela jende ugari nahiago dituela gatzik gabeko ogiak edo glutenari alergia diotenek, gluten gabeko ogia behar dutela. Horregatik, mota horietako ogi aniztasun ugari edukiko dute, ez bakarrik mota bakoitzeko bana.